


ZEIN DA GURE BALIO PROPOSAMENA ?

Ikusirik gure inguruko jendeak aterkiekiko duen jarrera, edo hobeto esanda erabiltzeko ohitura, **aterki mota berri bat** proposatu dugu jende honen beharretara edo gustuetara moldatuko dena.



Sarritan jendeak, batez ere gazteak eta gainean zamarik erabiltzea gustuko ez dutenak, kanpoan euria ari badu ere aterkia etxean utzita ateratzen dira kalera hauek erabiltzeak sortzen dizkien deserosotasunengatik. Beste hitz batzuetan esanda, nahiago dute busti, aterkiarekin hara eta hona ibili baino. Honen zergatia, dagoeneko merkatuan daudenak, handiegiak, pisutsuak eta gainean eramateko deserosoak direla uste dugu, horregatik, eskuak libre izatea maite dutenentzako aterki aproposa sortu dugu.



Aurretik esan bezala, jendearen beharretara egokitu nahi dugu gure produktua, aterkia konpaktua eta pisu gutxikoa izango da, hau da, poltsikoan edo poltsan gordetzeko egokiera izango du, horrela jendeak ez du inolako arazorik izango hura kalera eramatearekin. Horrez gain, euritakoa baliatu ondoren euriarekin bustita ez dugu askotan jakiten non gorde, hori dela eta, gure produktu honek inguruko gauzak ez bustitzeko aukera ere emango du.

Aipatu beharra dago, aterkiaren prezioa 12,99€ koa izango da, beraz, eskuragarria eta edonork erosi ahal izateko modukoa. Horrez gain, apur bat gehiago ordainduz gero, 21,99€, gure produktuak **diseinu desberdinak** izango ditu:

- ★ umeei zuzendutakoak
- ★ gazteei zuzendutakoak
- ★ nagusiei zuzendutakoak
- ★ kolore desberdinetakoak
- ★ ...



Amaitzeko, aterki berritzaile honi esker, jendeak jada euritakoa kalera ateratzeko deserosoa den aitzakiarik ez duela jarriko uste dugu. Hala, aterkien erabilera sustatuko dugu eta baita euritakoa etxean utzi ostean busti-busti eginda sortzen diren zenbait gaixotasun sahiestu ere.